

3. FUNTSEZKO ELKARTEAK:

IMANIZ proiektua ez da bata magnetiko baten ideia hutsa: haurren autonomia, inklusioa eta eguneroko zailtasunak arintzea bilatzen dituen ekimen sozial eta pedagogikoa da. Horregatik, funtsezkoa da gizarteko hainbat eragilerekin elkarlanean aritzea. Eragile horiek IMANIZen garapena, baliozkotzea, zabalkundea eta kalitatea bermatzeko laguntza zuzenekoak dira. Hurrengo hauek izango dira:

- IKASTETXE ARRUNT ETA BEREZIAK:

Ikastetxeak dira IMANIZ amantala benetan erabiliko den espazio nagusienak. Bertan gertatzen dira autojanzteko erronkak, eguneroko errutinak eta autonomia lantzeko uneak. Hortaz, ikastolekin parte hartze aktiboa izatea oso garrantzitsua da. Etxerako ere erabilgarriak dira baina eskolan ume kopuru ugari dago, hortaz oso lagungarriak izango dira IMANIZ bata errutinak aurrera modu egoki batean eramateko, haurren ongizitatea eta segurtasuna bermatuz

Ikastetxeek ekimenaren garapenean funtsezko papera betetzen dute, haurren benetako beharren inguruko feedback zuzena emanez, eta proiektua eguneroko testuingurura egokitze aukera emanez. Gainera, prototipoak praktikan probatzeko aukera eskaintzen dute, jantokian, patioan edo gelan, haurren jardueretan errealitatean nola funtzionatzen duen modu zuzenean behatzeko. Azkenik, haurren autonomia-mailaren bilakaerarako aukera ematen dute, ekimenaren eraginkortasuna ebaluatzeko eta haurren gaitasunak modu etengabea sustatzeko, inklusioa eta ongizitatea bermatuz.

Erabilera errealeko datuak eta hobekuntza proposamenak jasotzeak, produktua egokitu eta hobetzen laguntzen du, eta ikastetxeek ere proiektu inklusibo baten parte izateko aukera dute.

- TERAPEUTA OKUPAZIONALAK ETA FISIOTERAPEUTAK:

Dibertsitate funtzionala duten haurren gaitasunak, mugak eta beharrak oso ondo ezagutzen dituzte profesional hauek, eta horrek proiektuaren egokitzapen eta segurtasuna hobetzen laguntzen du.

Profesionalek ziurtatzen dute imanen kokapena, tamaina eta indarra egokiak direla, materialen segurtasun eta ergonomiari buruzko orientazioa ematen dute, eta haurren autonomia lantzeko ikuspegi terapeutikoa eskaintzen dute.

Horri esker, produktua seguruagoa, erabilgarriagoa eta profesionalen babespean dago, eta honek konfiantza sozial eta komertziala handitzen du.

- DIBERTSITATE FUNTZIONALAREN ALDEKO ELKARTEAK ETA FUNDAZIOAK

Dibertsitate funtzionalaren aldeko elkarreak eta fundazioak aliatu egokiak dira, komunitate honen beharrak, erronkak eta eguneroko errealitatea oso ondo ezagutzen dituztelako.

Hauek baliabide eta informazio oso baliotsua eskaintzen dute haurren behar espezifikoaren inguruan. Gainera; zabalkunde soziala ahalbidetzen dute familien eta profesionalen artean, proiektu inklusiboetan parte hartzen dute eta baterako ekimenak antolatzen dituzte.

Horri esker, IMANIZentzat gizarte legitimitatea, komunitatearen babesa eta dibertsitatearekiko sentsibilizazioa handitzen dira.

- HORNITZAILEAK:

IMANIZ amantala errealitate bihurtzeko ekoizpen fidagarria, material egokiak eta kalitatea behar dira. Horretarako hainbat hornitzailekin gaude kontaktuan.

Ehunak: Verdú ehunak, Sabadellen (Barcelona) kokatua, gure hornitzaile nagusia da eta kalitate handiko oihalak ematen dizkigu gure produktuak egiteko. Era berean, hornitzaile alternatibo gisa, Texere (Alcarràs industrialdea, Lleida) enpresarekin harremanetan gaude, eta horrek aukera ematen digu hornidura bermatzeko gure hornitzaile nagusiak ustekabeak edo atzerapenak baditu.

Imanak: Gure produktuetan sartzen ditugun iman txikiei dagokienez, Calamit España, kalitate handiagoko imanetan espezializatutako enpresa, gure hornitzaile nagusia da. Gainera, Supermagnete dugu, eta babes gisa harremana dugu harekin, horniduran gerta daitezkeen aldaketen aurrean etengabeko erabilgarritasuna eta malgutasuna bermatzeko.

- ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA INKLUSIO PROGRAMAK:

Administrazio publikoak estrategikoak dira, hezkuntza inklusiboa eta aukera-berdintasuna lehentasunetako bat baitira, eta horrek proiektuen garapena eta zabalkunde bultzatzen laguntzen du.

Administrazioak dirulaguntzak eta proiektu berezien finantzaketa eskaintzen ditu, ikastetxeetara sartzeko laguntza ematen du eta IMANIZ inklusiorako programetan txertatzeko aukera eskaintzen du.